



ALKIZAKO UDALA

**PROGRAMA BIDEZKO BITARTEKO FUNTZIONARIO IZENDATZEKO, ALKIZAKO HERRIAREN TURISMO EKIMENAK KUDEATZEKO ETA ZABALTZEKO LAN-POLTSAREN DEIALDIA ETA OINARRIAK**

1. Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua da, hautagaiak hautatzea, oposizio ireki bidez, Alkizako herriaren turismo ekimenak kudeatzeko eta zabaltzeko programa bidezko bitarteko funtzionarioa izendatzeko lan-poltsa sortu ahal izateko.

2. Lan baldintzak.

Eguneko lanaldia Udalak ezarriko duena izango da, betiere zerbitzuaren izaera eta beharrianak kontuan hartuta.

3. Plazaren ezaugarriak

- Lanpostua Administrazio Berezia eskalan, teknikaria azpieskalan.
- Sailkapen taldea: A2.
- Hizkuntza eskakizuna: C2 derrigorrezko izaerarekin.
- Ordainsari maila: Udalhitzeko 17 lanpostu-maila.
- Lanaldia: % 60
- Sarbide titulazioak: Titulu ofizial edo homologatu hauetakoren bat izatea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea: unibertsitate gradua edo titulu baliokideren baten jabe izatea.

4. Lanpostuaren Funtzioak.

Lanpostuaren funtzioak hauek izango dira:

- Alkizako turismo alorreko eskaintza indartzea natura turismo jasangarria oinarri hartuta eta horretarako beharrezkoak diren ekimenak diseinatu, programatu eta gauzatu.
- 'Erretore Etxea Etorkizuneko oinarria' proiektuaren garapenaren kudeaketan lagundu.
- Erretore Etxean jarriko den Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren jarduera dinamizatu, diseinatu, indartu, sustatu, kulturaren zein turismoaren ikuspegitik interesdun nitxo berriak identifikatuz eta berariazko eskaintzak prestatuz.
- Erretore Etxean jarriko den Fagus Alkiza Interpretazio Zentrorako dibulgazio materiala egokitu eta sortu eta horien diseinua eta inplementazioa kudeatu.



ALKIZAKO UDALA

- Erretore Etxean jarriko den Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren Web orrialdea elikatu.
- Erretore Etxean jarriko den Fagus Alkiza Zentroari lotutako proiektu berriak garatu eta indarrean daudenak eraberritu eta sendotu zentroaren hiru zutabeak —natura, gizakia eta kultura— aintzat hartuz.
- Herriko, eskualdeko eta lurraldeko eragile turistikoekin elkarlanean aritu, besteak beste, Tolosaldeko turismo mahaian parte hartuz eta Tolosaldeko turismo jasangarrirako *Next Generation* planaren jarraipena eginez
- Aisia eta kultura jarduerak sustatu, programazioa eginez eta gauzatuz, aintzat hartuta herriko interes talde desberdinak (haur, nerabe, gazte, heldu, ...) eta genero-ikuspegia.
- Aurreko puntuetako jarduerak burutzeko beharrezkoak diren diru-laguntza publikoak eta pribatuak kudeatu
- Beste edozein funtzio aurrekoekin eta lanpostuarekin zerikusia duena, garatu beharreko programan agertzen dena, alkateak eta arloko zinegotziak agindutakoan, edo eman beharreko zerbitzuak eskatzen duenean.

##### 5. Izangaien baldintzak.

Oposizioan onartua izateko, eta parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintzak hauexek dira:

a) Eskaera orria betetik aurkeztea.

b) Europako Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea edo Europako Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Era berean, Europako Batasuneko partaide diren beste Estatu etako nazionalen ezkontideak aurkeztu ahal izango dira, betiere eskubidez bereizita ez badaude, eta baita haien ondorengoak eta haien ezkontideenak ere, betiere eskubidez bereizita ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak izan edo adin hori gaindituta izan eta horien kargura bizi badira.



ALKIZAKO UDALA

c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean 16 urte beteta izatea eta nahitaez erretiratzeko gehieneko adina ez gainditzea.

d) Inolako administrazio publikoren edo autonomia erkidegotako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik kendu gabea izatea; ezgaituta ez egotea ere ebazpen judizial baten bidez enplegu edo funtzio publikoak betetzeko, funtzionarioen kidego edo eskalan sartzeko, edota ezgaituta izan den lan-kontratudun lanpostuan betetzen zituen antzeko zereginak betetzeko. Beste Estatu batekoa izatekotan, ez egotea bere Estatuan ezgaitua edota enplegu publikoa goiko termino beretan betetzea galarazten duen egoera baliokide batean.

e) Lanpostuaren berezko funtzioak normal burutzea galaraziko dion akats fisiko edo psikikorik edo gaixotasunik ez edukitzea. Baldintza hau dagokion azterketa medikoa bidez egiaztatu beharko da lanpostua karrerako funtzionario izendatua izan baino lehen.

f) Titulu ofizial edo homologatu hauetakoren bat izatea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea: unibertsitate graduaren edo titulu baliokideren baten jabe izatea.

g) Bateriaezintasun edo ezgaitasun kausa legalen batean sartuta ez egotea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren Bateriaezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoaren arabera; jadanik kargu publiko edo jarduera pribatu batean aritzen direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, halere, aipatutako legearekin bat etorriz.

h) Euskarazko C2 hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

4.oinarrian eta 8.2. oinarrian adierazitako baldintza guztiak instantziak aurkezteko epea amaitzen den egunean beteak egon behar dute.

Horretarako, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako edozein modu balia dezakete; izan ere, konbalidatuak geratzen dira bertan aipatzen diren euskarako ziurtagiri eta tituluak. Aipatutako Dekretuak, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen ditu, eta, orobat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria gokitzen ditu titulu eta ziurtagiriok.

i) Ingelesezko B2 mailako hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.



ALKIZAKO UDALA

Horretarako, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzen diren edozein titulu eta ziurtagiriak aurkeztu daitezke.

### 5. Instantziak.

Alkizako Udaleko bulego orokorretan eskuratu ahal izango dira eta oinarri hauetan II. Eranskin moduan doan eredu normalizatuari egokituko zaizkio instantziak.

Partehartzeko eskatuz beteko diren instantzia normalizatuak Alkizako Udaleko alkateari zuzenduko zaizkio, eta onartuak izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

a) Deialdiko 4. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela azaldu beharko dute izangaiek. Baldintzok betetzeko epemuga instantzien aurkezpenarena izango da, g) atalean bateraezintasunezkoztat jotako jardueri buruz zehazten dena salbu.

b) Instantziari ondorengo agiriak erantsi beharko zaizkio:

- Naren fotokopia, edo Europako Batasuneko beste estatuetako partaidearen kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatuko duen agiria,
- Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioa edo horren fotokopia konpultsatua.
- Euskarako hizkuntz eskakizunaren titulu originala edo fotokopia konpultsatua, izanez gero.
- Ingeleseko titulu originala edo fotokopia konpultsatua, izanez gero.

Instantziak Alkizako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira behar bezala beteta.

Ordutegia: Udal bulegoetako ordutegia.

Helbidea: San Martin Plaza 12, 20494 Alkiza.

Epea: Udaleko web orrian eta hedabide batean, deialdiaren iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egun naturaleko epean.



ALKIZAKO UDALA

Posta bulegoetan aurkeztutako instantziak, Administrazio Publikoaren Prozedura Administratibo Erkidegoaren 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gutunazal irekian aurkeztuko dira, ziurtatuak izan aurretik Posta bulegoko funtzionarioak instantziak aurkezteko epearen barruko data eta zigilua ipini diezazkien. Horrela bakarrik ulertuko da instantziak Posta bulegoan utzi ziren egunean izan dutela sarrera Alkizako Udaleko Erregistro Orokorrean. Instantziak berak eraman behar du zigilua.

Atzemandako okerrak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta.

#### *Izangaiak onartzea.*

Instantziak aurkezteko epea amaiturik, onartu eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda onartuko du Alkateak eta Udaletzeko iragarki taulan eta udaleko web orrian jarriko da erakusgai 5 laneguneko epea emanaz kanpoan gelditzera bultzatu duten okerrak edo ez-egiteak zuzentzeko, edo erreklamazioak aurkezteko, Administrazio Publikoaren Prozedura Administratibo Erkidegoaren 39/2015 Legeko 68 artikulua xedatutakoaren arabera.

Erreklamaziorik ez balego, behin-behineko zerrenda behinbetikotzat joko da besterik gabe. Egon baleude, betiko zerrenda onartuko duen ebazpen berri baten bidez onartu edo baztertuko dira, eta, halaber, adierazitako eran argitaratuko da.

Azken ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, onartuen eta baztertuen zerrenda Udaleko web orrian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta bi hilabeteko epearen barruan, bidezkotzat jo daitekeen beste edozein errekurtsu aurkeztearen kaltetan gabe.

Aldez aurretik, eta hala nahi izatera, berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean.

Behin-behineko zerrendatik kanpo geratu diren eta epearen barruan erreklamazioa aurkezten duten hautagaiek aukera izango dute badaezpadako hautapen probak egiteko, baldin eta erreklamazioa ez bada azterketa egunerako ebatzi.



ALKIZAKO UDALA

## Epaimahai Kalifikatzailea.

### 1. Osakera.

Deitutako hautaketa jardunbide honetako Epaimahai aztertzailea ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuko 4. artikuluan, Euskal Enplegu Publikoaren 11/22 Legeko 81 artikuluan eta martxoaren 10eko 364/95 ED-an ezarritakoaren arabera osatuko da eta osaera, behin izendapenak Alkatetzak egin ondoren udaleko webgunean argitaratuko dira onartutako eta baztertutako hautagaien zerrendarekin batera.

Epaimahaia nagusiki teknikoa izango da eta mahaikideek deitutako lanpostuetan jarduteko eskatzen den titulazio berdina edo goragokoa izan beharko dute.

Epaimahaiaren osaeran espezialitatearen printzipioa errespetatuko da. Irizpide horren arabera, Epaimahai bakoitzeko kideen erdiak, gutxienez, lanpostuan jarduteko eskatzen den ezagupen-arlo bereko titulazioa izatea zainduko da. Ostera, eta horrek espezialitate hatsarreari kalterik egin gabe, osaketak orekatua izan beharko du gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen artean, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun legearen, otsailaren 20ko 2005/4 legeko 20.6 artikulua agindutakoaren arabera. Era berean, epaimahaiko kideak izendatze a unean, izendaturiko lagun guztiak elebidunak izan daitezen ahaleginduko da.

Epaimahaia ordezkari kideez ere osatu beharko da, mahaikide titularrei dagozkienak eta haiekin batera izendatu beharko direnak ordezkatu ezin diren epaimahaiko idazkari karguak eta mahaikideenak betetzeko.

Epaimahaiak, aholkulari lanetan arituko diren adituak izendatu ahal izango ditu, beren espezialitatearen arloko gaietan bakarrik jardungo dutenak. Pertsona horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, eta horietan bakarrik emango diote laguntza Epaimahaiari.

### 2. Jarduera

Epaimahaiak bildutako botoen gehiengoaz hartuko dituzte erabakiak. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, Idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik izango. Berdinketa gertatzen bada, Epaimahaiburua botoak erabakiko du.



ALKIZAKO UDALA

Epaimahaiburua edo haren ordezkoa bileran ez badago, gaixorik badago, edo bestelako kausa legalen batek horretara behartzen badu, Epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak hartuko du haren tokia.

Idazkaria edo haren ordezkoa bileran ez badago, gaixorik badago edo bestelako kausa legalen batek horretara behartzen badu, Epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak hartuko du haren tokia.

Egoki iritzitako probatarako Epaimahaiak bere zereginetarako aholkulari adituen laguntza eskatu ahal izango du, baina horien egitekoa beren espezialitate teknikora mugatua egongo da.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezin izango dute esku hartu eta alkateari horrela jakinarazi beharko diote Administrazio Publikoaren Prozedura Administratibo Erkidegoaren 39/2015 Legearen 23. artikulua xedatzen dituen gorabeherak gertatzen badira edo deialdi hau argitaratzen den unetik atzera eginez bost urteko epean proba hautakorretako izangaien prestaketan jardun badute. Izangaiek ere epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, lege horretako 24. artikulua dioenarekin bat, lehen adierazitako inguruabarrak gertatzen direla irizten dutenean.

Epaimahaiak hautapen sistema garatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzake deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztian, eta haien aplikazioan eta interpretazioan sor daitezkeen gai guztiak erabakiko ditu.

Epaimahaia da, betiere deialdiaren eta bere oinarrien baitan, burutuko diren ariketen edukia, ebaluatzeko aplikagarria diren irizpideak, ariketen emaitzak eta ariketak garatzeari buruzko edozein motatako gorabeherak erabakitzeko eskumen duen organoa. Era berean, Epaimahaiak bere helburuak lortzearren behar den guztietan erabakiak hartuko ditu, betiere ahalmen hori indarrean dauden legeek beste organoei egotzi ez badiete.

Epaimahaiak, hautapen prozesuaren edozein unetan, deialdian parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez duen hautagairen bat dagoela jakiten badu, interesdunari entzun eta gero, hura baztertzeko proposatuko dio organo eskudunari, eskaeran hark adierazitako okerrak edo faltsukeriak adierazita.

#### 8. Oposizioaren ariketak.



ALKIZAKO UDALA

Azterketen deialdia, eta Epaimahaiaren erabakiak, Alkizako Udaleko iragarki taulan eta web orrian emango dira argitara.

Izangaiak ariketa bakoitzerako deituak izango dira deialdi bakarrean, eta edozein gorabehera dela eta bertara agertzen ez direnak hautespen prozesutik baztertu egingo dira, behar bezala frogatutako eta Epaimahaiak libreki iritzitako ezinbesteko arazo kasuetan izan ezik.

Arau bera aplikatuko zaie probak hasita daudenean etortzen diren oposiziogileei.

Oposiziogileek NA, gidatzeko baimena edo pasaporteak dutela agertu behar dute proba guztietara; Epaimahaiak edozein unetan eska baitiezaieke. Agirik aurkezten ez duena hautespen prozesutik kanpo geldituko da.

Epaimahaiak aldatu ahal izango du proba egiteko ordena.

Era berean, probak egun berean egiteko erabakia hartzeko aukera izango du. Azken kasu honetan, probak gainditu ahala ebaluatuko dira. Oposiziogileak txandaka deituak izan daitezke.

Guztiek batera egingo ez dituzten ariketetan izangaiek izango duten jarduketara ordena ezartzeko, zozketa egingo da.

### **8.1.Oposizioa ondorengo ariketek osatuko dute:**

— Lehenengo ariketa:

Nahitaezkoa eta baztertzailea izangai guztientzat.

Oinarriekin batera I. eranskin gisa doan gaien zerrendari buruz Epaimahaiak prestaturiko test moduko galdeketei idatziz erantzun beharko zaie. Gehienez ere 20 punturekin baloratuko da eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditu ahal izateko.

Epaimahaiaren irizpidearen baitan geratzen da, hala gertatuz gero, gaizki erantzundako galderak nola zigortu zehaztea.

Irizpide hori ariketa hasi aurretik jakinaraziko da.

—Bigarrenengo ariketa:





ALKIZAKO UDALA

Nahitaezkoa eta baztertzailea izangai guztientzat.

Ariketa praktikoa. Deialdiari dagokion azpieskalako lanpostuetako eginkizunei eta deialdi honen eranskinetako gai zerrendako gaietara loturiko proba praktikoa bat/batzuk izango dira, Epaimahaiak denbora jakin bat emanda. Kasu praktikoa ebaztea, txostenak egitea, jarduketara plana garatzea, jardueren memoria egitea, prentsa ohar edo artikulua bat idaztea, gai zerrendako gaietara loturiko proiektuak egitea, jardueren urteko programazioa egitea edo hautaketa Epaimahaiak egoki iritzitako beste edozein proba praktikoa izan daiteke ariketa.

Ariketa hau gehienez ere 30 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

—Hirugarren ariketa:

Nahitaezkoa eta baztertzailea izangai guztientzat.

Aurrez-aurreko elkarrizketa.

Ariketa hau gehienez ere 10 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

## **8.2. Lehiaketa-aldia.**

Ezarritako baldintzen arabera Epaimahaiak merituen arabera baloratuko ditu.

a) Herri Administrazioetan edo beren menpeko erakunde edo enpresetan eginiko zerbitzuengatik, beteko den lanpostuan egikaritutako diren funtzioekin zuzenean erlazionaturik dauden funtzioak egikaritzeagatik.

Gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako urte oso bakoitzeko gehienez ere 1 punturekin. Ez dira urte zatiak zenbatuko, baizik eta urte osoak bakarrik.

b) Deialdian eskatzen diren ikasketei buruz:

- Komunikazio edo turismo arloarekin (zentzu zabalean) zerikusia duten Unibertsitateko titulua edukitzea: 10 puntu



ALKIZAKO UDALA

c) EBko gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialetako batean B2 mailako hizkuntza eskakizuna egiaztatzea, edo beste hizkuntza baten eskakizuna egiaztatzea gehienez 5 punturekin baloratuko da.

Europar Batasuneko gaztelaniaz besteko egiaztatutako hizkuntz bakoitzeko 1 punturekin baloratuko da.

d) Ingurumen-gidari ikastaroa egina izatea (gutxienez 30 ordukoa): 5 puntu

### 9. Izangai onartuen zerrenda eta Epaimahaiaren proposamena.

Oposaketako proba baztertzailerak gainditu dituen izangai bakoitzaren bukaerako kalifikazioa egin diren probatan lortutakoaren baturak emango du, eta kalifikazio horrek behin betiko puntuazio hurrenkera erabakiko du.

Berdinketa balego, ondorengo irizpideak aintzat hartuta finkatuko da ordena:

1. Oposizioaren lehenengo ariketan (teorikoa) puntu gehien lortu duenaren alde.

Ariketen eta merezimenduen kalifikazioa amaituta, azken puntuazio hurrenkeraren arabera lan poltsako kideen berri emango du epaimahaiak iragarki taulan. Alkizako herriaren sustapen kultural eta turistikoa bultzatzeko langilearen postua behin-behinean betetzeko ezinbestekoa izango da eskaturiko ikasketa maila eta hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

Epaimahaiak udaleko organo eskudunari aurkeztuko dio dagokion poltsa onartua gera dadin.

### 10. Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren martxa ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta hemen aplikatu daitezkeen arautegi osagarrian xedatu ez den kasuetarako.

### 11. Inpugnazioak.



ALKIZAKO UDALA

Deialdi hau, honen oinarriak eta berauetatik eta Epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesatuek, indarrean dagoen urriaren 2ko Administrazio Jardunbidea arautzen duen 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean ezarritako epean eta moduan.

## I. ERANSKINA GAI ZERRENDA:

### 1.- **Alkizaren ezagutza**

- 1.1. Herriaren historia
- 1.2. Alkizako pertsona adierazgarrienak

### 2.- **Fagus Alkiza:**

- 2.1. Natura 2000 sarea
- 2.2. Hernio Gazume ZEC Dekretua (219/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzekoa. )
- 2.3. Fagus Alkiza interpretazio zentroa

### 3.- **TURISMO-KULTURA**

- 3.1.- Herriko mapa ezagutu: auzoak eta eraikin eta baserri esanguratsuenak
- 3.2.- Udalerrian kokatutako errekurtsio eta baliabide turistiko eta kulturalak
- 3.3. Eskualde mailako turismo eta kultur eskaintza eta baliabidea
- 3.4. Tolosaldeko turismo jasangarriko plana

### 4.- **TURISMO-MERKATUA**

- 4.1.-Tokiko produktu turistikoak sortu eta garatzea.
- 4.2. Komunikazio turistikoa.
- 4.3. Helmugaren sustapena eta merkaturatzea; publiko objektiboa identifikatzea

### 5.-**SUSTAPEN TRESNAK**

- 5.1. Herriko komunikazio baliabideak: web gunea, sare sozialak.....
- 5.2.Eskualdeko komunikabideak
- 5.3.Lurralde eta Euskal Herri mailako komunikabideak
- 5.4 Bestelako baliabideak



ALKIZAKO UDALA

## II ERANSKINA

### ALKIZAKO HERRIAREN TURISMO EKIMENAK KUDEATZEKO ETA ZABALTZEKO LAN POLTSAREN HAUTAPEN PROZESUAN PARTE HARTZEKO ESKAERA ORRIA

#### 1. DATU PERTSONALAK

<b>1. deitura</b>	<b>2. deitura</b>	<b>Izena</b>
<b>NA</b>	<b>Kontaktuko telefonoa(k)</b>	<b>Jaioteguna</b>
<b>Bizilekua</b>	<b>Herria</b>	<b>Posta-kodea</b>
<b>Probintzia</b>	<b>e-maila</b>	

#### 2. FORMAZIOA

Deialdian eskaturiko titulu akademiko ofiziala

<b>TITULUA</b>	<b>ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA</b>	<b>NOIZ LORTUA</b>

#### 3. FORMAZIOA EUSKARA ETA BESTE HIZKUNTZAK

<b>TITULUA</b>	<b>ERAKUNDE EMAILEA</b>	<b>URTEA</b>



ALKIZAKO UDALA

**4. ESPERIENTZIA Administrazio Publikoan (merezimenduak kalifikatzeko)**

<b>NOIZ SARTUA</b>	<b>NOIZ UTZIA</b>	<b>ADMINISTRATIOAREN Izena</b>	<b>BETETAKO LANPOSTUA</b>

**5. ESPERIENTZIA Arlo pribatuan (merezimenduak kalifikatzeko)**

<b>NOIZ SARTUA</b>	<b>NOIZ UTZIA</b>	<b>EMPRESAREN Izena</b>	<b>BETETAKO LANPOSTUA</b>

**ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK**

**EZINBESTEKOAK**

- NA fotokopia**
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskaturiko tituluaren fotokopia**
- Euskarazko C2 hizkuntza Eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo titulu baliokidearena)**
- Ingelesezko B2 mailako hizkuntza eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo titulu baliokidearena)**
- Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen Eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia (edo titulu baliokidearena)**



ALKIZAKO UDALA

## EZINBESTEKOA LAN ESKARMENTUA EGIAZTATZEKO

- Administrazio publikoan burutako lanen ziurtagiria**
- Bizitza laborala**
- Gainerako tituluak**

**Baimena ematen diot Alkizako Udalari, prozesu honetatik ateratako nire datu pertsonalak beste herri administrazio batzuei emateko baldin eta antzeko lanpostuetan parte hartzeko helburuarekin baldin bada.**

*Behean sinatzen duen honek ESKATZEN DU onartua izan dadila eskabide honetan adierazitako hautaprobetan, eta BAIEZTATZEN DU egiazkoak direla hemen adierazten dituen datuak eta betetzen dituela deialdiko Oinarrietan eskaturiko baldintzak eta eskakizunak. Horretarako, hitz ematen du jatorrizko agirien bidez egiaztatuko dituela eskatzen dizkiotenean.*

Data \_\_\_\_\_  
Sinadura

## ALKIZA UDALEKO ALKATE-PRESIDENTEA

Datuen babeserako araudia betez, adierazten dugu formulario honetan jasotako datu guztiak Ibarra udalak bildu eta bere erantzukizunean tratatuko direla **Alkizako Udaleko herriaren sustapen kultural eta turistikoa bultzatzeko erdi mailako teknikaria.**

Datu hauen tratamendua eskatzaileak baimenduta dago eta ez dira hirugarren batzuei lagako bere baimenik gabe, ez bada hala arautzen duten legeak betetzeko.

Datuak tratatzeko, **Alkizako Udalak** jakinarazten du egoki jotako segurtasun neurriak ezarri dituela eta langileei formakuntza eman diela, datuen pribatasuna mantentze aldera eta galera, erabilera okerra, aldaketa, baimendu gabeko sarbidea eta lapurtzea saihesteko, Izaera Pertsonaleko Datuen babeserako araudia betez.

Eskatzaileak, bere helbide elektronikoa ematean, **Alkizako Udala baimentzen du** komunikazio bide gisa erabiltzeko, eragiten dioten



ALKIZAKO UDALA

administrazio egintzen komunikazio eta jakinarazpenerako, balio sinesgarriarekin.

Bilduta izan zireneko helburua betetakoan, ezeztatu egingo dira eta soilik mantenduko dira legezko betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko, horiek irauten duten bitartean. Interesdunak edozein unetan du bere datuen gaineko sartze, zuzentze, ezeztatze/kentze, aurkaratze, mugatze eta eramangarritasun eskubidea . Horretarako eskaera egin behar du **Alkizako Udaleko** datuen babeserako arduradunari, Alkiza plaza 12, 20494 Alkiza edo mezu bat bidali [dbo@alkiza.eus](mailto:dbo@alkiza.eus) helbidera eta bi kasuetan honakoa adierazi: “Gaia: DBLO. eskubideak”; horrekin batera bere nortasuna egiaztatzeko agiriaren kopia erantsi behar du indarrean dagoen araudia betez.

Eskatzaileak uste badu bere eskubideak ez direla behar bezala errespetatu, arlo horretan eskumena duen organora jo dezake: (Datuen babeserako agentzia “ [www.aepd.es](http://www.aepd.es)”).